

SANTI ONAINDIA ETA IGNAZIO BERAKOETXEA

Karmel aldizkariaren azken hogeita bost urteotako ibilbidea dugu gogoan, Julen Urkizak Karmelo Zubizarretaren eskutik lema hartu eta aurrera daraman kultur abenturaren ibilbidea hain zuzen ere. Luis Arostegik, munduko karmeldar guztien buru denak, Erromatik, lemazain kementsuaren irudia ezartzen dio *Karmen* aldizkariaren egungo zuzendariari. Izan ere, Julen Urkiza Ondarroako semea da eta ezin hobeki datorkio lemazainaren irudia. Are gehiago, *Karmel*, gerra aurrean sorturiko aldizkaria, kulturaren itsasoan, diktadurapean eta gero, ekaitz gaiztoen artean onik irten eta gaur egun bizi-bizi dagoena izanik.

Sarreratxo honen ondoren, jo dezagun goiko izenburuaren haritik. Santi Onaindia *Karmel* eta *Oleri* aldizkariaren arima eta ardatza urte luze eta zailetan, guztiz ezaguna da euskal letretan pixka bat sartua denarentzat. *Mila Euskal-Olerki Eder* argitaratzean sarrera ospetsua egin zuen euskal literaturaren munduan. 1954an izan zen hori. Harrezkero joan dira urteak, lehorte, euri eta elurteak. Ignazio Berakoetxea ez da ezaguna, oso hurbilekoen artean izan ezik. Santi Onaindiaren paperen artean, hark *Milla Euskal-Olerki Eder* liburuari eginiko ohar zorrotz eta egokiak aurkitu ditugu. Hori izango da idazlan xume honetarako hautatu dudana gaia. Horren aurretik –batak aurkezpenik ez du behar baina– biak aurkeztuko ditut, labur bada ere; Ignazio Berakoetxea pixka bat luzeago, irakurle askok ez baitute ezagutuko.

Santi Onaindia

1996ko otsailaren 11n zendu zenean, *Euskaldunon Egunkarirako* idatzi nuenetik jasoko dut lapurpen hau:

“Euskal letretako langile aspergaitza, olerkaria, Grezia eta Erromako klasikoen itzultzailea, bertsolaritzaz eta batez ere euskal literaturaz hainbat liburu idatzi dituena, era askotako gaiak jaso idazlan eta liburutan ia bukaezineko zerrenda luzea duena. Guztien gainetik *MILA EUSKAL-OLERKI EDER* liburuaren egiletzat gogoratuko du geroak Santi Onaindia.

Haren lanen artean, olerkiak, idazlan laburrak eta liburuak ditugu. Prosaz egindako idazlan laburretan, honako gai hauek jorratzen ditu batez ere: erlijio-gaiak, euskal gaiak eta gai orokorrak. Liburuetan ere oso zerrenda luzea du. Hauek honela sailka genitzake: bere-bereak, bildumak, itzulpenak eta berak argitaratutako beste zenbait idazleren lanak.

Utzi digun altxor honetan ikusten dugunez, arlo askotan saiatu zen idazle joria dugu Santi Onaindia. Nabarduraz beteko haren emaitza nolabait adieraztearren, udazkeneko baso koloretsua ekarri nuen gogora behin. Honela nioen: *Santi Onaindiaren idazlanei begira jartzea, udazkenean, eguraldi argiz, begohaize epelaren gozotan, pagadi edo harizti bati so egitea bezalatsu da. Neguko lotara orduko, era guztitako kolorez –berde argi, arrosa, horixka...– burua erakusten duen basoaren ikuskizun sorgina! Bertan barneratu ahala, ordea, oihan itsuan zaudela ohartzen zara. Belarkiak, iratzeak, txilarrak, kukufrakak, zubaixkak, zubaizak, landaredi sarria.*

Literaturari eta sortze-lanari hertsiki gagozkiola, berak zioen bezala, ‘ederraren’ bilaketa zuen barne-ametsa. Ederraz edo arteaz, arte poetikoaz bereziki, teoria oso eta bere-berea eraikitzen saiatu zen *Oleri* aldizkarian idazten zituen idazlenetan. Garai hartako olerkariak, bereziki gazteak, aldizkari horren inguruan bildu izana berari zor zaio. Geroko izen ezagunak, hala nola, Gabriel Aresti, Otsalar, J.A. Etxebarria, Luis Mari Muji-

ka, Paulo Iztueta, Joan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Jose Azurmendi eta abar hortxe hasi ziren lehenengoetako urratsak ematen. Beste izen asko gerra aurretik ere idazten zutenak ziren; hala nola, Nemesio Etxaniz, Iratzeder, Bordari, Sabin Muniategi, Balentin Aurre-Apraiz, Gabirel Manterola, Eusebio Erkiaga, J. Aldabe, Zeleta eta abar. Dena dela, Santi Onaindia izan zen *Olerti* aldizkariaren arima eta olerkarien loraldi jori hori bildu eta gidatu zuena. Pertsona atsegina, literaturazalea eta amets ez betea izanik, gerra aurreko olerkarien eta gerra osteko poeta gazteen zubi izan genuen; egile eta eragile.

Hark zioenez, ederra berez da eder eta Jainkoak izadian eta unibertsoan erein duen bere irudiaren puskan ageri da. Hau litzateke ‘ederraren’ edo artearen sorburua. Horrek hunkiturik, goi-argiz (diosku berak) gero gizakiak bere asmamenean erakitzen duen sorkari miresgarria da artea. Kanpoan dagoen ederra dastatzeko guztiok omen gara gai; sentimendu hura artearen jantzi apainez eta behar den magia adierazteko ez, ordea. Horretarako olerkari-sena behar. Santik berak bazuen dohain hori. Orixe, Lizardi eta Lauxetaren eskolan trebatua eta haien mireslea, hitzaren eta irudien erabileran maisua genuen. Poesian nahiz prosan estilo loratua zeukan; barroko antzekoa; ideiak zuzenki adieraztera barik, apainduraz horniturik dotore adierazteko joera zuen”.

Ignazio Berakoetxea

Bilbon jaio zen 1906ko otsailaren 5ean. Karmeldarra. Larreako nobizio-etxean sartu zen 1923ko abuztuaren 5ean, Eustasio San Joserena izena hartuz. Hurrengo urteko, 1924ko, abuztuaren 6an profesa egin zuen. Filosofiako eta teologiako ikasketak Gasteizen eta Begoñan egin zituen hurrenez hurren. 1931ko ekainean apaiz sagaraturik, geroko lehen urteak karmeldarren ikastetxe txikiak irakasle zereginean eman zituen: urtebete izan zen Larreako ikastetxeko irakasle eta hurrengo urtean Montecarlora bidali zuten, Frantziako karmeldarren komunitate

hartan organista-zeregina bete zezan. Urtebeteko egonaldia printzerri hartan eta Larreako ikastetxera itzuli zen.

Soldadutza egin behar izan zuen 1934an. Hortik libre gelditu zenean, Alesbesko (Villafranca) karmeldarren ikastetxeko irakasle izendatu zuten 1934ko abuztuan. Han igaro zituen gerateko urteak. 1941ean Larreako nobizio-etxeko kide izendatu zuten. Hurrengo urtean Txilera bidali zuten. 1943. urtearen hasieran iritsi zen hara eta lurralde hartan –ez beti hiri eta komentu berean– emango zuen bere karmeldar bizitzako aldirik luzeena: 32 urte. Valparaison, San Fernandon, Viña del Mar-en eta Santiagon bizi izan zen. Ikusi dugunez, Euskal Herrian bizi izan zen lehen urteetan, irakasle eta organista izan zen. Txileko urteetan organista, ekonomo eta nagusi. Txileko Bikaritzan Probintzialaren ordezkari ere izan zen. Moja karmeldarren hainbat komunitateren kapilau eta aitor-entzule.

Bera Bilbon jaioa zen, hasieran adierazi dugunez, baina us-te dut bere burua altzotartzat zuela. Izan ere, haren senideetako batzuk Altzon bizi ziren. Horregatik, Txileko bizialdia amaiturik, Euskal Herrira itzuli zenean, Altzoko karmeldarren egoitzara, Zuaznabar-goenara, erretiratu zen. Egonaldi hori etenik, Larreara etorri zen aldi labur baterako, hemengo elizan organista beharra baitzuten. Gero Altzora itzuli eta han bizi izan zen zorionsu, maite zuten egoitzako karmeldarrak, bere senide eta herritarrak inguruan zituela. Osasuntsua zirudien, baina arnasbideetako gaitz arina eta erraz sendatzekoa izango zela-koan, txarrera egin eta lehenik bihotzeko ez larria diagnostikatu zioten, baina hiru bat egun geroago berriro bihotzekoak emanda ordu gutxira hil zen nahiko gazterik, 77 urte zituela.

Organista bikaina. Gure ikastetxeetan irakasle izan zen urteetan gerora organista onak izango zirenak izan zituen bere ikasleen artean; haietatik ospetsuena Jose Manuel Azkue, Donostiako Santa Maria Basilikako organista. Baina *Karmel* aldizkariaren orrietan Santi Onaindiaren ondoan ezartzeko, Ignazio Berakoetxearen erdi ezkutuko aldeari begiratu diogu: euskal-

tzale aldeari. *Olerki* aldizkarian hainbat olerki ditu argitaraturik, batzuk poeta handien itzulpenak; *Karmengo Argian*, *Karmel* honen aurretikoan, idazlan bi edo hiru. Itzulpenetan ahalegin-
du zen. Batez ere Karmeldarren Ordenako santuen lan bat-
zuen atalak itzultzen. Itzulpen-lan hauek beretzat egiten zitue-
la esango nuke, euskaltzaletasunak eraginda, ez argitaratzeko
asmoz. Izan ere, gauza guztiak bikain eta akats gabe egitea
zuen gogoko eta ez zuen edozerk asetzen. Ez dakigu Santa
Teresaren, San Joan Gurutzekoaren eta Santa Teresatxo Li-
sieuxkoaren obraren bat osorik itzuliko zuen. Guk dakigula
ez. Txilen bizi zen urteetako batzuetan, Justo Mokoroari asko
lagundu omen zion euskal esapideak biltzen.

Bi karmeldar euskaltzaleon aurkezpena egin ondoren, idaz-
lantxo honen muinari helduko diogu: Ignazio Berakoetxeak
Santi Onaindiaren *Milla Euskal-Olerki Eder* liburuari eginiko
oharrak. “Nere iritziko oarrak” jartzen du izenburuan. Dagoen-
dagoenean jarriko dut haren testua, baina “r” gangardunaren
eta “l” goi-marradunaren ordez, “rr” eta “ll” erabiliko ditut:

*1.- H eta ü ez dira bilduman aintzakotzat artzen; eta euskal-
kiz bear ziran tokirik askotan, jan egin dira. Min izango dute,
aen premi dutenak; eta aekin batean, euskalki orien berri da-
kitenak ere bai.*

*2.- H eta ü oriek tarteka kentzea asko ez dala, olerkirik askotxo-
tan erabat kendu egin dira. Eta okerrago dana, egille beraren
beste zenbait olerkitan aintzakotzat artu ondoren. (Adibidez:
Agustin Etcheberry-ren bi olerkitan (n° 373 ta 374, h-rik gabe; n°
375, h-rekin).- N° 393 h-rik gabe; eta n° 392 h-dun).- N° 399, ez-
peletar batena, ta h-rik gabe.- Nabarmen eta itsusi dirudi.-
N°422, Otchalde-rena ta h-rik geienak kenduta; besteak h-rekin...*

*3.- Asi nintzan ni h ta ü oek jartzen; baiña amaigabeko nekea
zala oarturik, ez nien gehiago jaramonik egin. Alare, ipintzea
bearrezkoa zan batzutan bertsoaren neurrirako, naiz itzaren
ezaugarritzako; eta orduan bai, okerra adierazi egin det.*

4.- *Gaiñerontzeko utsak, oartu naizen guzietan behintzat, us-
tez osatu ditut. Zenbait aldiz, zalantzako gauza izanik "falta"
ezarri det alboan, idaz-ama obeto aztertu dezazun. Beste ba-
tzutan (?) ipiñi det, ba ezpada. Ez aaztu pag. 55-an 18-gn.
olerkiak 19 bear zukela; eta andik aurrerako guziak zenbaki
batez atzerago dijoazela.*

5.- *Erri-olerkitan sartu dituzu, egille jakiña zuten lan batzuk.
(Adibidez: n° 117, Orixeren Lauda Sion; n° 96 egille beraren
Toberak; eta abar. N° 49: Lurraren pean, Jean-Baptiste Cehar-
di-rena bezela ikusi det nunbait aitatuá.- N° 53: bigarren aa-
paldia Azkue-rena bide da; ez iñolaz ere errikoa.- N° 60: erri-
koa ote aldaera? Ikus Sallaberry-rena.- N° 101: Azkuek garbi
aitortzen du berak egiñak dituela itzak: Yurreta-koa, doiñua
da; ez bertsoak. Azkuek orraztuak badira beste zenbait, oen
antzera.*

6.- *Tarteka, eta alakorik adierazi gabe, egillearen itzak kendu
eta beste batzuk sartu dituzu. (Adibidez. N° 60 ortan bertan
"tristerik"en orde z "itunik".- N° 149, pag. 190 "Occidente"ren
orde z "sarkalde".- Olako askotxo.- Okerragoa egin zaio Goy-
hetche-ri: bertsoak aldatu, eta berak iñolaz ere aitortuko etzi-
tuzken itzak erantsi: luna lehoina-ren orde z; beronen, lotsa
(vergüenza) eta olako...*

7. N° 322. B. *Etxegarai-rena ote? Ezetz egingo nuke: lapurtar
bikaiñez egiña dago-ta.*

8.- *Pio Mortara-ren bizitza bi aldiz dator: pág. 363 eta 402.
Nolabait adierazi bearko da beraz n° 336 zeñena dan.*

9.- *Pedro Ezkurra ta Venegas de Figueroa biak bat dirala dio-
zu. Gauza ziuurra al da? ta nundik dakikegu?*

10.- *Arrese-Beitia-k bigarren liburu bat ere argitaratu zuen:
Asti-orduetako bertsoak... edo alako beste izenen batekin. Txi-
len, A. Agustiñek erakutsi zidan; eta esaerak biltzen astiro az-
tertu nuen, orain zazpi urte.- Zuk ez dezu liburu bakar baten
aitamena baizik egiten.*

11.- Pág. 469: *GIBERT al zan, ala GUIBERT? Nik bigarren au daukat gogoan, oker ezpanago.- Nolanai ere, jaio edo il-urteak oker daude: 1869-1872.*

12.- Pág. 349. *GERNIKAKO ARBOLA-k ez al ditu beste lau aapaldi ere? Manterolak, zure oek dakartzi, baiña gebiago ikusi izan ditut. Begira ESKUALDUN KANTARIAK (1922), pág. 5). (Azken aapaldiko oestargiña zer ote zan?)*

13.- *Kirikiñoren bizitzan oker dago jaio-urtea. Pág. 643.*

14.- N° 32, pág. 66. *Ez dira bear bezela kopiatu Azkue-ren Kantutegitik.*

2-gn aapaldia: (azkena)
*Indietara joan zan
Galaitxo maitea.*

3-gna.
*Umerik eta ba dozu,
andretxo gaztea?
-Bi seme ta alaba,
jauna, or dira.*

4-gna.
*Umeok etc.
(3-gn. ipiñi dezuna)*

5-gna.
*(4-gn ipiñi dezuna, beste
azken onekin);
-Nik alan gobernatu,
galaitxo maitea.*

6-gna.
*-Kopeta ederra dozu,
andretxo gaztea.
-Nik alan orraztuta,
galaitxo maitea.*

15.- N° 25 (pág. 61). *Aldaera batzuk:*

1-ngo. bertsoan: oi hura nolako!

3-gn “ Begia du ederra.

16.- N^o 27 (pág. 62). *Aldaerak:*

1-ngo. Aapald. 3-gn bertsoan: gauak igaiten ditut ardura, oi!
- ardura noala maiteagana.

2-gn aapald.: 4-gn berts.: dautazu arras ilhuntzen, -oi.-
zeren ez nauzun behin uzten.

3-gn aapald., 2.gn berts.: ez zerazuia ba iduri?
Itsaso dena igaro niro
Zuregatikan igari,
oi!
Zeren zaren xoragarri!

4-gn aapald.: Xoragarria baniza ere,
ez naiteke izan zure.
Nitaz atsegin duten bertzerik
lurrean hainitz baitire.
oi!
Jainkoaz, othoi, urrun zaite!

5-gn aapald.: Khantu haukien ontzaliak
etzuien eskripularik;
kaderan dago jarririk
eta segur alegerarik
oi!
Penarik gabe, bat galdurik.

17.- N^o 31. Pág. 66. *Lotsa obeko aldaera:*

5-gn aapald.; ez ginen egartsu.

18.- N^o 34 (Pág. 68). *Iru aapaldi ederrez murriztu da:*

3. Itsasoa, eguriok,
phaosa hadi mement bat,
ene phena ororen berri
eman nahi dereiat.

*Bat maithatu, eta dena
kitatu behar diat:
zorthia untsa kontre diat.*

*4. Baratzian eijerrenik
da arrosa lilia:
baren urrinak duluratzen
ene sendimentia.*

*Berthuterik ederrena
da fidelitatia:
hura da ene sinbestia.*

*5. Xori khantazale eijerra,
khanta ezak eztiki:
mundian zorigaitzdunik
eztuk sorthu ni baizi.*

*Eni adio erran gabe
Ihes egin herriti:
Hark ditak nigarra bethi.*

19.- N° 54. (Pág. 83). *Zuberoan ba ditu beste lau aapaldi eder:*

*Oberat ziradia, lozale pollita?
Oberat ezpazira, jin zazkit leihora, (bis)
bitzño bat erran eta ba nua berbala.*

*Gora düzü leizarra, gorago izarra,
orai eztiz´oren bat oberat nizala: (bis)
ohetik jeikitsera herabe düdala.*

*Bortü goretan eder epher zangogorri;
ene bibotza düzü züganat injogi; (bis)
eta zuria aldiz botxia üdüri.*

*Oreiña laster dua horen aitzinian,
burian sartzen düzü abal dianian;
ez amorioz, bena bai bere beharrez;
zü ere hala hala zabilta araeuz.*

20.- N° 97. (Pág. 114) *Jaramon egin sei ta zazpigarren aapal-
dian zuzendu ditudan akatsai: egiñen (ez egin); danborra (ez*

denbora). *Lekuonak olako irristada asko egin zitun EUSKAL-DUNAK argitaratzean.*

21.- N^o 99. Pág. 117. *Sallaberry-k onako beste aapaldi au ere ba dakar, jasotzea merezi zukena:*

*Borthark eder leiharrez
borthal-atzia intxaurrez;
etxe huntako etxek´anderiak
bulhar-artia zilbarrez.*

22.- N^o 427. Pág. 518. *Mendiague-ren liburutxoan egokiago datorrela deritzat, onako aldaera oekin:*

5-gn aapaldi: *Art´izarra agertzean jaiki zaite obetik,
zeren ez baitu egunak oren ederragorik;
bas´oilarrak orduan du kantatzen oihanetik,
bai´ta burua xoriak azaltzen begalpetik.*

6-gn. *Ihizi bek ernatzean eman zaite lanean,
lana baita errexago goizik hasten denean;
bozkariatuko zare iguzkia agertzean,
phentze-lilien usaina zureganat beltzean.*

7-gn. *Mahanean lagunekin zaudenean jarria,
izan zaite alegera eta maithagarria;
lotsaz dagon beharrari eginaraz irria,
sor dakion bihotzean bozkario berria.*

23.- N^o 437. Pág. 532. *Azken-aapaldi bat ba du, gabe uztea erruki dana.*

(Berriz herritik urruntzean)

*Ezkila, berriz diat bihotzean pena,
herritik urruntzean bakotxak duena;
neretzat hik baihuen jo lehen orena,
agian hik orobat joko duk azkena!*

...

Azken itz.

Or dituzu nere begi gaixtoak arrapatu dituzten utsak, eta zuk eskaturik kolkoan gorde ez nezazkean oarrak.

Lapitzaz marratu dizkizut irakurri-alean irrista-lekurik nabarmenenak ere.

Ez da errez izango dena kontuan edukitzea; baiña utsegiterik larritxoena behintzat nolabait osatu bear litezkela deritzat; eta bai gainerrantzeko guziak ere erabateko oarren batez.

Zure gain azken erabakia artzea.

Beste erdia ere horrela bialtzen badidazu, saiatuko naiz beste orrenbeste egiten. Olerkari berrien lanak gutxiago ezagutzen ordea, eta nekez egiñ aalko orren azterketa zeatzik bigarren zati ortan.

(Arren ez itzazu ezabatu nere lapitz-marrak; liburua josi-ondoan txukunago ipiñi aal ditzadan).

Amaierako hitzak

Idazmakina idatziriko hiru orrialde eta erdi dira guztira. Ez du jartzen oharrik egin dituenaren sinadurarik, ezta datarik ere. Ez nuke nahi inola ere Ignazio Berakoetxearen ohar hauengatik oraingo irakurle gazteen aurrean Santi Onaindiaren ohoreak bere distira galtzerik. Saiatu zen Santi huts horiek zuzentzen. Garai hartan ez zen batere erraza horrelako material handiko liburua akats gabe edota akats gutxi-gutxirekin argitaratzea. Kantutegietan bertso ugari agertzen zen. Idazkeraz, ahapaldien kopuruaz bazen alderik batzuen eta besteen artean; hizkuntza aldetik ere denboraren buruan eginiko ukituak, aldaerak nabari ziren. Ignazio Berakoetxearen oharrik, dirudienez, ez ziren garaiz iritsi obraren egilearen eskuetara. Hark berak ere bazekien zuzenketa guztiak zehatz-mehatz sartzerik ez zuela izango. Horregatik esaten dio: “Ez da errez izango dena kontuan edukitzea; baiña utsegiterik larritxoena beintzat nolabait osatu bear litezkela deritzat; eta bai gainerrantzeko guziak ere erabateko oarren batez”.

Santi Onaindiak, zegokion lekuan, testu barruan, ezin izan zituen zuzendu hemen adierazten diren hutsak. Liburuaren amaieran, aurkibidearen aurrean, ezarri zuen eranskin antzeko bat “Azken-oarrak eta utsak zuzendu” izenekoa. 1176. orrialde-tik 1179.era artean dator hori letra txiki-txikiz. Azken orduko oharrak izan ziren hauek eta lehen partekoak soilik; bigarre-nekoak egiteko ere prest zegoen. Bestalde, badakigu inprimate-giko probak zuzentzen lan handi eta ona egin zuena Lon Arte-aga mañariarrak.

Karmel aldizkariaren azken hogeita bost urteotako ibilbidea goraiapatzean, garai zailetan *Karmel* eta *Oleri* aldizkarien zuta-be eta arima izan zen Santi Onaindia ekarri dugu aurrera. Gaur egun ia ezin dugu pentsatu ere egin zer izan zen garai hartan *Milla Euskal-Olerki Eder* obra handia argitaratzea; nola eskertu zen euskal letren munduan obra hura. Bide batez, bere bizitza-ko aldirik luzeena atzerrian eman arren, euskaltzale handi eta argia izan zen Ignazio Berakoetxeari ere berea eman nahi izan diogu, egungo euskal letren maitaleen artean pixka bat ezagu-tua izan dadin.

Luis Baraiazarra Txertudi